



BERTAKOA, PLAZATIK INDARTUZ

Azoka plaza eraberritzearekin bat, birsortu eta indartuko duen prozesua jarri du abian Udalak. Helburua, bertako produktuen erreferente izango den plaza bihurtzea



AZPEITIA JASANGARRIA

Energia arloan aholkularitza emateko hitzarmena sinatu da Usurbilgo Lanbide Eskolarekin



ONGIZATEA

Udal-laguntzak, Sustapen Plana eta etxebizitzaren alokairurako laguntzak onartu ditu Udalak

Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailletza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Parekidetasuna	943 15 79 28
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zaborteia	943 15 18 75
Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Baigera I eta II	943 81 44 64 II / 943 81 23 89
Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

Botika txandak

ALBERDI.

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Ekainaren 2, 7, 14, 21 eta 28

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Ekainaren 6, 10, 11, 12, 20 eta 27

BERISTAIN

Urbitearte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Ekainaren 1, 8, 13, 18, 19, 24 eta 30

EIZAGIRRE

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Ekainaren 3, 9, 16 eta 23

JACOME


Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Ekainaren 4, 5, 15, 17, 22, 25, 26 eta 29

Ale honetan zer?

Denon herria.....	2
Azpeitia jasagarria.....	6
Ekonomia sendotzen	8
Azpeitia osasuntsua.....	12
Azpeitia elkarlanean.....	14
Eraikitzen	16

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Diseinua eta argazkiak:
EREKI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000
LG: SS - 1148/91



Azpeitia ezagutzen



Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez, Azpeitiko historia ezagutzeko balioko diguten herriko datu esanguratsuak ikasteko aukera dugu tarte honetan. Ezagutu Azpeitia, bere historia eta ondarea!

Madalena auzoa

Erdi Aroko bi eraikin dira nabarmentzekoak: eliza eta ospitalea.

XIV. mendeko agirietan aipatzen da Madalena eliza. Hiru arku ditu atarian eta kanpoaldea mu-dejar estilokoa du (kristau erresumetako musulmanen arte estiloa). Elizaren barruan Maria Madalena-ren egurrezko irudi bat ikus daiteke (XVI. mendekoa).

Madalena elizaren ondoan, errepidea gurutzatuta aurkitzen

da Madalena ospitalea izandako eraikina (gaur egun konpontze lanetan ari dira). Ez dakigu noiz eta nork sortu zuen. Gaixoak (legena zutenak barne), ondasunik gabeko bidaiariak, erromesak... hartzeko sortu zen. 1535ean Inazio Loiolakoa iritsi zen bertara eta horregatik da ezaguna.

Madalena ospitalea Madalena elizaren aurretik herriranzko bidea hartuko dugu Perez Arregi plazaxora iritsi arte (Etxe Zuriko plaza).

Behar gehien duten herritarrak atzean ez uzteko, Udal-laguntza propioak

Udal-laguntza propioen oinarrietan hainbat egokitzapen egin ditu Udalak aurtengo deialdirako; batik bat, pentsio baxua duten herritarren perfilean jarri da arreta aldaketak egiterakoan



Udalak Gizarte Zerbitzuen bidez, gaizkien pasatzen ari diren herritarrei laguntza emateko konpromisoa du. Horretarako, zerbitzu izateaz gain, duela zenbait urtetatik, udal diru-laguntza propioak ere baditu.

Hori dela eta, Azpeitiko Udalak duela zenbait urte, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Gizarte Larrialdietarako laguntzak premia zuten herritarren gutxieneko beharrei erantzuteko adina ez zela ikusirik, udal-laguntza propioak sortu zituen. "Behar larrian dagoen inor ez dugu nahi ataka horretan bakarrik utzi, eta horregatik sortu genituen udal-laguntza propioak", adierazi du Ainhoa Beristain Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak. Eta helburu bera izanda aurkeztu dituzte 2016ko laguntzak ere, iazko diru kopurua mantenduz.

Pentsiodunak kontuan

Plenoan aho batez onartu osten, indarrean dira 2016. urteko laguntzen oinarriak. Oinarrien baldintzak eta irizpideak aurreko urtekoen bide beretik doaz, baina, aldaketa batzuk egin dira azken urteotako eskaerak ikusirik, pentsio baxu dun pertsonak ere laguntza horiek jasotzeko aukera izan dezaten: "Azken urteotan gogor jasan dute krisia pentsiodunek, ere eta asko eta asko dira pentsio baxua duten pertsonak. Beraz, arazoak dituzte oinarrizko behar izanak asetzeko. Orain artean ere kontuan genituen, baina aurtengoan bereziki aztertu ditugu kasuak", adierazi du Beristainek.

Azken urteotan perfil horretako gero eta jende gehiagok dituzten behar izanak kontuan izan dira aurtengo laguntzak egokitzera gaitzen, beraz.

Iaz, Udal laguntza propioen bidez eta Gizarte Larrialdietarako laguntzen bidez 211 familiari lagundu zitzaizen beren oinarrizko beharretan

Iazko laguntzen balorazioa

2015. urtean 146.380 euro bideratu ditu Udalak Udal laguntzetara. Laguntza horien bidez, lehen mailako premiak, alokairuak, kredituak, mantentze lanak...ordaintze lagundu zaie herritarrei. Guztira, Gizarte Larrialdietarako laguntzekin eta Udal Laguntzen bidez, 211 familia lagundu ziren iaz, eta 265.000 euro bidetatu ziren horretara.

Hirugarren urtez, 150.000 euro jarriko ditu Udalak etxebizitzaren alokairua sustatzeko

Laguntza eskatzeko epea zabalik izango da urriaren 15a bitartean; informazio gehiago nahi duenak Azpeitia Lantzenen eska dezake



azpeitiko udalak etxebizitza premia duten kolektiboei (gazte, banandu, jubilatu, alargun...) behar horri erantzun eta gizarteratze prozesuan laguntzeko, alokairurako laguntzak jarri ditu abian. Aurreko urteetan bezala 150.000 euroko diru poltsa jarri du horretarako.

Aurtengo diru laguntzak, aurreko urteetako jarraipena dabira ere bi berrikuntza nagusi azpimarratzekoak dira:

1. Alargunei ere irekiak

Laguntzak jasotzeko aukera alargunei zabaldu zaie, aurtun. Aitor Bereziartua zinegotziak azaltzen duenez, urtez urte, herritarren beharretara eta eskaeretara egokitzen doaz etxebizitzaren alokairurako laguntza horiek: "Alargunei laguntza jasotzeko aukera aztertu dugu aurtun, eskaerak izan ditugulako, eta aurtun horiek ere laguntza jasotzeko aukera izango dute".

2. Etxea partekatzen dutenak

Orain artean ez bezala, etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahalko dute laguntzaren onuradun, baldin eta errenta kontratua denek sinatuta badute.

Onuradunak

Diru-laguntza horiek eskatzeko, ezinbestekoa da 10 urtean gutxienez, Azpeitian erroldatuta egotea. Honakoak izan daitezke onuradunak:

- 18 eta 35 urte bitarteko gazteak.
- Mugikortasun urria duten pertsonak.
- Bananduta edo dibortziatu.
- 70 urtetik gorako pertsonak.
- Alargunak.

Bi urteotan, 115 onuradun

Azken bi urteotan, diru-laguntza hori 115 pertsonak jaso dute. 2014an, gazteei zuzendutako diru-laguntzak izan ziren, eta 47 onuradun izan ziren. Iaz, berriz, beste zenbait kolektibori ireki zitzaion diru-laguntza eskuratzeko aukera eta 68 lagunek jaso zuten laguntza. "Aurtengoan,

alargunak ere sartu ditugu diru-laguntzak jaso ditzaketen kolektiboen artean. Eta orain arte ez bezala, etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamentu kontratua denek sinatzen badute", azaldu du Bereziartuak.

Laguntzen zenbatekoak

Hilean 550 euro edo gutxiago ordaintzen diren alokairuen ordainketan laguntzen da, eta diru-sarreraren arabera ezarritako sistema baten oinarritzen da. Gehienez hilean 250,00 euro ematen dira, 12 hilabetean. Alde Zaharreko etxebizitzaren kasuan, laguntza orokorraz gain 50 euro gehiago jaso ditzakete.

Aurrez diru-laguntza jaso dutenei, aurtengoari dagokion diru-laguntza gehienez %25ean murriztuko zaie.

Alokairua

Ainara Larrañaga zinegotziak azaldu duenez, "jakitun gara, gaur egun, etxe gutxi daudela alokatzeko merkatuan. Hori dela eta alokatzeko moduan etxebizitza duten herritarrek etxebizitzak merkatura ateratzera animatu nahi ditugu", azaldu du. Diru-laguntza hauek jasotzeko onuradunek alokairua ordainduta dutela ziurtatu behar dutela adierazi du, "bestela ez dute laguntzarik jasotzen. Inoiz ez da laguntzarik ukatu alokairua ordaindu gabe izan dutelako. Beraz, laguntza hauek etxejabeentzat ere berme bat dira", gaineratu du.

Eskaera epea zabalik

Eskaera udaletxean egin behar da urriaren 15a bitartean. Informazio gehiagorako edota edozein zalantza argitzeko Azpeitia Lantzenera jo daiteke.



Azpeitiko ekonomia bultzatzeko 300.000 euro bideratu ditu Udalak



Langabeziari eta krisiari aurre egitea da Udalarentzat, lehentasunetako bat: "Langabezia ez da neutroa eta langabetuei zein lanean ari direnei egiten die kalte. Langabeziak ekartzen baitu lan-baldintzen eskatea ere", azaltzen du Eneko Etxeberria alkateak.

Berez, eskumen eta baliabide gutxi dituzte udalak ekonomian eragiteko, baina bere txikitik, Azpeitiko Udala azken urteotan emaitzak lortzen ari da. "Hau ez da obrak bezalako ikusgarria, zaila da Sustapen Planaren eragina ikustea eta neurtzea, baina datuak eta adibideak hor ditugu", zehazten du Etxeberriak. Adibide gisa duelak gutxi eraberrituta ireki den Kimu Bat denda jartzen du: "Beraiek ideia eta ekintzailetasuna zuten, eta guk babestu egin ditugu beren proiektuak garatu eta aurrera egin dezaten.

Datuei erreparatuz gero, gaur egun Azpeitian 850 langabe daude, duela urtebete baino 157 gutxiago; "Hala ere, asko dira, eta gutxiago izateko lanean jarraituko dugu", azpimarratzen du.

Lau lan lerroren arabera banatuta, 300.000 euro bideratu ditu aurten Sustapen Planera Udalak

Aurtengo Sustapen Planera 300.000 euro bideratu ditu Udalak, baina horretaz gain, formakuntzara beste 200.000 euro bideratu zituen 2016ko aurrekontuetan.

Sustapen Plana 4 ardatzetan banatuta dago: "Laguntzen oinarriak zehazterakoan, herriko eragileekin bildu gara, beraien beharrak eta ekarpenak jasotzeko, eta horrela osatu ditugu oinarriak", azaldu du.

Sustapen Plana

Enpresa eta industria: 165.000 euro

- 20 langile baino gutxiagoko enpresen proiektu berritzaileak eta Azpeitiaren dibersifikazioa lagunduko dutenak.
- Langile kopuru zehatzik gabeko enpresak lagunduko dira gutxienez, 120.000 euroko inbertsioak egiten badituzte instalazio eta ekipamendu tekniko eta teknologikoetan.
- Gutxienez 35 langile dituzten enpresa berriak herrian

kokatu eta 700.000 euroko inbertsioak egiten badituzte instalazio eta ekipamendu tekniko eta teknologikoetan.

Ekintzailetza: 60.000 euro

- Autonomo eta ekintzaile berriei autonomo izateko laguntza ematen zaizkie.
- Ekonomia sozialeko enpresak sortzeko laguntzak.

Berrikuntza soziala: 35.000 euro

- Berrikuntza Soziala bultzatzea eta inplizituki balore

solidarioak, komuniarioak eta gizarte-justiziakoak barneratzen dituztenak eta gizartearen onurakoak diren proiektuak lagunduko dira, enpleguaren sorrera bultzatzen badute.

Merkataritza eta lehen sektorea: 40.000 euro

- Langile berrien kontratazio-rako laguntza.
- Internet bidez produktuak salgai ipintzeko ataria abian jartzea

- Denden berrikuntza.
- Elkarlana enpresa merkatarien artean. Guztien artean gutxienez 35 langile izan behar dituzte eta 3 merkatarik bildu behar dira izen edota marka komun batean: Marketing ekintzak ...
- Sektorearen modernizatzea eta estabilizatzea: instalazioak Bertako produktuen kontsumoa.
- Jarduerak berriak jartzea Alde Zaharrean, Nuarbe eta Urrestillan.



%3,1 jaitsi zuen iaz Udalak energia kontsumoa, eta %11,8 gasen isuria

Iaz onartu zuen Udalak Energia Plana. Egindako azterketa eta hausnarketen baitan, energia kontsumoa gutxitu eta kontsumo arduratsu eta jasangarriaren aldeko apustu garbia egin du. Hartutako bide horren zenbait emaitza dagoeneko ikus eta nabari ditu Udalak

a Azpeitiko Udalak energiaren inguruko bestelako kontsumo politika bat izatea du helburu. Energia kontsumoa murriztu eta energia jasangarrien aldeko bidea marraztu izan du Azpeitia 2015-2025 Plan Estrategikoan zein iaz egindako Energia Planean. Hartutako bidea ari da fruituak ematen eta herritarrak hori ikusteko moduan dira jada.

Pixkanaka, gutxinaka, han eta hemen neurriak hartuz udalak iazko energia kontsumoa %3,1 murriztea lortu zuen, eta Aitor Bereziartua Ingurumen zinegotziak berretsi duenez, "energia berriztagarrien bidez funtzionatzeko konpromisoa du".

Eraginkortasun energetikoa, kontsumoaren murrizketa eta energia berriztagarrien ezarpenarekin lotutako ekintza eta neurri desberdinak hartzea aurreikusten du Udalak, eta epe motzean abian jartzeko beste neurri batzuk ere eskuartean ditu.

Kontsumo energetikoaren harira sortutako negutegi efektua eragiten duten gasen isuria ere nabarmen jaitsi du Udalak. Hala, 2014an baino %11,8 gutxiago isuri zen 2015. urtean. Hori

elektrizitate berdearen kontratazioak eta gas naturalaren kontsumoa jaisteak eragin du.

Kontsumoak eta kutzadurak behera egin badu ere, gastuak %1,2 egin du


gora; energiaren prezioak gora egin duelako, hain zuzen ere. Hala, 2015ean, guztira, energiak eragindako gastua 751.148 eurokoa izan du Azpeitiko Udalak; hau da, 51,5 euro azpeitiarr bakoitzeko.

Loiolako parkean, uraren kontsumoa murriztu



Ur emaria eta ur kontsumoaren gastuak aztertu ostean, iturriari ura moztu eta bertan landareak landatzea erabaki da. Iaztik, ondoan beste iturri bat dago ura edan nahi duenarentzat. Josu Labaka zinegotziaren arabera, "aztertu dugu ur emari etengabea izan gabe iturria jartzeko aukera, baina iturria dexente hautsi behar zen", eta horregatik baztertu da aukera. Kontsumo arduratsua egiteko modua hau ere badela gaineratu du: "Baliabideen kontsumo arduratsua egitea hau ere bada. Neurri txikia da, baina arduratsu jokatu behar du Udalak horrelakoetan ere".

Kalkuluen arabera, etenik gabeko iturriak urtean 2.500 metro kubiko ur eta 1.500 euro inguruko gastua zuen. Ondoan jarritako iturriaren kontsumoa, 300-400 metro kubiko ur ingurukoa da eta 100-120 euroko gastua du.



Ibilgailu elektrikoen aldeko apustua



Etorkizun jasangarriagoa eskaintzeko helburuz Udalak kotxe elektrikoaren aldeko apustua egin du: "Udaltzainek autoa behar zuten eta elektrikoa erostearen alde egin dugu, horrelako kotxeak gasolinarik ez gastatzeaz gain, CO2 isuriak nabarmen gutxiago isurtzen dituztelako airera", azaldu du Aitor Bereziartua zinegotziak.

Udaltzaingoaren aurrean jarri da kotxea kargatzeko postea. "Lehenengo kotxe batekin egingo dugu proba, baina honek ongi funtzionatzen badu, etorkizunean ere auto elektrikoen aldeko apustua egingo du Udalak", jarraitu du Bereziartuak. Baina ez da bere horretan gelditzen apustua: "Etorkizunean, erabat burujabe den auto elektrikoa izatea nahi dugu. Hau da, eguzki plaka bidez energia geuk sortu eta horrela autoak bere egunerokoa egitea lortzea dugu helburu", adierazi du.

Autoaren kostua, 13.500 eurotakoa izan da.

Usurbilgo Lanbide Eskolarekin, hitzarmena



Usurbilgo Lanbide Eskolarekin hitzarmena sinatu du Azpeitiko Udalak, energiaren inguruko hainbat azterketa eta ekintzetan elkarrekin aritzeko. Azpeitiko Udalak Energia Plana indarrean du iaztik, eta han energiaren efizientzia eta energia berdearen alde egiteko zehaztutako ekintzak aurrera eramaten ari da. Bide horretan, plan hori gauzatu eta helburuak betetzeko aholkularitza eta prestakuntza teknikoa eskainiko dizkio Usurbilgo Lanbide Eskolak Udalari. "Hitzarmen honetan zehazten dugun bezala Energia Planaren baitan udal-

instalazioetan energia berriztagarrien txertatze prozesuan eta energiaren erabilera eraginkortzeko prozesuan, aholkularitza eta prestakuntza teknikoa emateko jakinduria eta baliabideak eskainiko baitizkigute", jakinarazi zuen Aitor Bereziartua, Ingurumen zinegotziak.

Usurbilgo zentroa energiaren inguruko ikasketa eta zerbitzuak eskaintzen dituen ikastetxe erreferentea da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Bertakoa bertakoekin biziberritzeko

Azoka plazari bizia eman, lehen sektorea indartu eta ekonomia sustatzeko prozesu parte hartzailea abiatu du Udalak, eragileekin elkarlanean



azoka plazako eraikina eraberritzen eta itxuraldatzen ari da. Berrituta eta itxura aldatuta izango da laster, baina azken hilabeteotan abian jarritako dinamika parte-hartzaile baten bidez kanpoko itxura aldatzetik haratago herriko ekonomia sustatuko duen eta bertako produktuen plaza izango den gune dinamiko bat sortzeko lanetan ari da Udala, hainbat eragileekin elkarlanean.

Azoka plazari bizia emateko asmo horretan, ez du biderik errezena aukeratu, Udalak. Horren jakitun da: "Supermerkatu handien eskaintzei uko egin eta biderik errazena aukeratu ez arren egokiena aukeratu dugulakoan gaude. Guk plazatik, geuretik, eta iraganetik abiatuta eraiki nahi ditugulako etorkizuna eta herria. Gure oinarrietatik, lurretik, lehen sektoretik" hasi da proiektuaren nondik norakoak azaltzen Josu Labaka zinegotzia.


Helburu nagusia azoka plazatik ere ekonomia sustatzea izango da, baina ez edonolako ekonomia: "Pertsonengantik abiatutako

ekonomia, ekonomia arduratsu, bertakoa, jasangarria eta sozialaren aldeko apustua egin nahi dugu", azpimarratzen du Labakak.

Horretarako, dagoeneko parte hartze prozesu txiki bat eta hainbat bilera egin ditu Udalak, besteak beste, Urkome, Bertan, Iraurgi Berritzen, Urolab, Kultur Mahaia, Alde Zaharreko dendariekin, baserritarrekin, azoka plazan postua dutenekin... eta bestelako hainbat norbanakorekin ere bai: "Horrelako proiektu batek funtzionatuko badu, ezinbestean elkarlana izan behar duelako oinarri", dio.

Orain artean bezala azoka egiteko eta produktuak merkaturatzeko gunea izango da etorkizunean ere, postu finko zein ez finkoekin. Hala ere, pauso bat eman eta astearte eta ostiraleko azokez gain, etorkizunean bestelako azokak eta ekintzak egitea ere izango da erronka. Sektore eta eragileen elkarlanetik abiatuta erabilera

Bertako, Azpeitiko, Euskal Herriko, produktuen merkaturatze edota salerosketarako gune dinamikoak sortzea da helburua



anitzeko gune multifuntzional eta bizia sortzea lortu nahi baita.

Ideiak plazara

Orain artean plazaren inguruko hausnarketa eta asmoak inguru txikian elkartrukatzen ari dira baina fase berri batean sartu, eta herritar orori proiektuaren berri eman beharra sentitu dute.

Obrak sei edota zortzi hilabeteen bukatuta egotea aurreikusten da, eta horrek ere bultzatu du Udala anbizioz osatu nahi duen proiektuaren berri ematera.

Bertako produktuak lehentasun

Arrandegia, harategia eta hirugarren establezimendu bat finko izatea da helburua. Hirugarren gune hori lehen sektoreari, eta Euskal Herrian bertan ekoizten diren produktuen gunea izatea da apustua: "Bertako produktuak eta bertako ekoizpena balioan jarri nahi ditugu. Eta azoka plaza Euskal Herriko produktuen gunea izatea nahi dugu", adierazi du. Bertakoa, Azpeititik hasi

eta eskualdeaz gaindi euskal produktuen plaza eraikitzeko proiektua osatzea dute helburu.

Hausnarketatik, proiektua garatzera

Orain artean, egin dira bilerak, baina Udalak beste bilera erronda hasiko du sarea oraindik eta gehiago zabaltzeko; lehen sektoreko eragileekin, eragile sozialekin eta bestelako eragile ekonomikoekin indarrak metatuz eraikinari bizitza emango dion proiektu zehazta garatzen hasteko. "Bilera horietatik proiektu honen motoreak izango den mahaia osatu nahi da, alde batetik; eta, bestetik, orain artean osatutako sarera jendea batzea lortu nahi dugu", dio Labakak. Proiektuaren dinamizazio lanetarako teknikari bat ere jarri du Udalak, eta hura izango da hemendik aurrera eragileekin elkarlanean arituko dena, etengabe.

Elkarlana eta indarren metaketa badute helburu ere, "garbi baino garbiago dugu azoka plazaren protagonista lehen

Orain artean egindako hausnarketa faseari bukaera eman eta beste bilera erronda bat hasi du Udalak

sektorea izan behar duela. Ziurrenik, azken hamarkada luzeetan sektore honi ez diogu behar bezainbeste atentzio eskaini, eta krisiak erakutsi digu, besteak beste, sektoreen oreka mantentzeak duen garrantzia”, aitortzen du Labakak. Lehen sektoreari inoiz galdu behar ez zuen protagonismoa emateaz gain, azoka plazak sortu dezaken dinamikak bultzatuta, ekoizpenean ere eragitea

lortu nahi da, “horrela lanpostuak sortzeko aukera ere egon daitekeela ikusten baitugu. Eta azoka plaza ere izan daiteke Azpeitiko ekonomiaren motoreetako bat”.

Eta horrek berak, lehen sektorearen beraren bizirautean eta belaunaldi berriak sektorerako erakartzea lortu dezake.

Nekazariak jakien kalitatean, lurarren kudeaketan, ingurumenaren zainketa eta azken finean gure osasunean duten ardura kontuan izanda, sektore horri behar bezalako arreta eta zerbitzuak eskaintzeko konpromisoa du: “Lehen sektorea sustatuko dugu, eta bertan, ekoiztutako produktuen azoka izatea dugu helburu. Horrek dakartzan onura guztien jakitun baikara”.

Lehen pausoak, elkarlanean

Pasa den azarotik Azpeitiko Udala eragileekin bildu eta hainbat dinamika egiten aritu da azoka plazako ideiarekin inguruko hausnarketa eta iritziak trukatzeko



azoka plaza kanpotik eraberritzearekin batera, gune hori indartzeko asmoa izan du Azpeitiko Udalak hasieratik. Bide horretan, eta obraren azken fase edota konponketen faltan, hausnarketa prozesu bat egiteari ekin zion.

lazko udazkenean (azaroan eta abenduan) hiru bilerak egin ziren herriko eragile sozioekonomikoekin. Tartean izan ziren, Urkome, Bertan, Iraurgi Berritzen,

Urolab, Kultur Mahaia, Alde Zaharreko dendariak, baserriarrak, azoka plazan postua dutenak... eta dinamika desberdinen bidez, azoka plazaren zein bere erabileraren inguruko hausnarketa egin zen.

Besteak beste, eragile bakoitzak dituen beharrak eta espazio berrian bultzatu daitezkeen dinamika eta ekintzen inguruko ideiak jaso zituen Udalak tailer horietan.

Etorkizuneko lan lerroak identifikatu eta lan taldeak zehazteko ahalegina ere egin zen bileretan. Parte hartu zuten eragileek orohar, argi ikusi zuten dinamizazioa sozioekonomikoa modu berritzaile batean bultzatu beharko dela, eta zerbait berritzailea izan behar duela proiektuak. Azoka plaza produktuak merkaturatzeko gune batetik harago, herritarrek biltzeko era erlazionatzeko modu berriak bultzatzeko gunea izan behar duela ondorioztatu zuten, finean.

Beheko solairua egokitze obrak

Obrak esleitzeko lehiaketa publikoa abian da eta Udalaren helburua uztailaren hasieran lanak hastea da; hala, urte bukaera alderako bukatuta izatea aurreikusten da



Azoka-plazaren beheko solairuaren kanpo hormak eraberritu eta suteei eta irisgarritasunari dagokion araudira egokitzeko oinarritzko proiektuaren obra lanen exekuzioa esleitzeko kontratazioa abian jarri du Udalak. Lehiaketa publiko bidez esleituko da obra eta 1,2 milioiko aurrekontua izango du, gehinez ere.

Lehiaketan proposamenak aurkezteko epea bukatuta, Aitor Bereziartua zinegotziak, "uztailaren hasieran behe solairua egokitze lanak hasita egotea" nahi eta aurreikusten du.

Obrek 6 hilabeteko iraupena izango dute, eta beraz, urte bukaera alderako azoka plaza sute eta irisgarritasun arauetara egokituta eta txukunduta

egongo da. "Plaza urte bukaerarako berriro abian izango dugu, baina ziurrenik, oraindik ere faltako da azpiegitura osatzeko ekipamenduren bat edo beste", adierazi du Bereziartuak.

**Azoka plaza
berriak arrandegia,
harategia eta
hirugarren postu finko
batez gain, sukaldea
ere izango du**

Asteartetako azokari dagokionez, azokara etorri ohi diren baserritarrek hitz egiten eta adosten ari dira plazako lanek irauten duten bitartean nola egin. "Hitz egiten ari gara, eta obrak esleitzean lanak egingo dituenarekin ere hitz egin beharko dugu, denontzat egokiena den modua bilatzeko", adierazi du Bereziartuak.

Hiru postu finko

Behe solairuan, harategia eta arrandegia jartzeko bi lokalez gain, sukaldea eta hirugarren postu bat ere jartzea aurreikusten da.

Hirugarren postu horretan bertako produktuak saldu eta merkaturatuko dituen saltokia jartzea aurreikusten du Udalak.

Bizimodu aktiboa eta osasuntsua sustatzeko zerbitzuak hobetzen

Kirolean eta jarduera fisikoan herri aktiboa da Azpeitia. Ugari dira modu batera edo bestera jarduera fisikoa egiten duten azpeitiarrak, eta horiei ahalik eta azpiegitura egokienak eta zerbitzu onena ematea du helburu Udalak. Bide horretan, eta etengabeko hobekuntza helburu, herritarrekin elkarlanean hainbat ekintza antolatu ditu

Igerilekuko zerbitzua hobetzeko bilerak



Urtebete da igerilekua handitzeko egindako zati berria ireki zela. Denbora horretan abian jarritako aldaketen inguruan eta hobetzeko dagoenaz hitz egiteko bilerak egin dira, eta inkesta bidez ere jaso dira erabiltzaileen ekarpen eta iritziak.

Guztira 100 ekarpen inguru jaso dira, eta 60 bat lagunek hartu dute parte, modu batera edota bestera.

Azpeitiko Udalaren Kirol Patronatua jasotako eskaera horiek aztertzen ari da: "Jasotako ekarpen guztiak aztertzen ari gara, eta egiteko modukoak diren aldaketak egingo ditugu. Zenbait eskaerak azterketa sakona behar dute ordea", adierazi du Estitxu Elduaiei Kirol Batzordeburuak.

Bizitza aktiboa adinekoek ere bai



Ariketa fisikoa egin eta bizitza aktiboak izugarritzko onurak ditu gizakion osasun fisiko eta mentalean, hori diote adituek. Herritarren artean, eta, batez ere, adineko pertsonen artean ohitura osasuntsuak sustatzeko asmoz *Astindu Adina!* Astea antolatu du Udalak lehen aldiz, aurtengo maiatzean, herriko eragileekin elkarlanean.

Baina ohitura osasuntsuak hartzeaz gain, giza harremanak lantzeko ere aukera eskaintzen hainbat irteera, ikastaro eta bestelako egin dira: oinezko ibilaldia, bizikleta irteera, diabetesaren inguruko hitzaldia, bihotz geldialdien aurrean egin beharreko lehen pausoak ikasteko ikastaroa... izan dira antolatutako ekintzetako batzuk.

Azpeitiko Udalak asteak izan duen harrera positibotzat jotzen du, eta aurrera begira ere bide horretan ekintza gehiago antolatzen segituko du.

Joxe Takolo Beka Lagun Onakentzat, mendizaletasuna aztertzeko

Joxe Takolo Bekaren edizio berezia izango da aurtengoa. Berezia, alde batetik, 15. edizioa delako. Eta bestetik, Lagun Onak Mendi Bazkunak jaso duelako beka, ohikoa ez den proposamen bat gauzatzeko: mendizaletasuna aztertzea da aurtengo bekaren helburua.

Estitxu Elduaienek zein Aitor Unanue Lagun Onakeko lehendakariak inflexio puntu gisa definitu dute aurtengo beka: "15 urte dira beka honen oinarriak jarri genituela, asko aldatu da ordutik goi mendizaletasuna eta mendizaletasuna aztertuz, beka honen izaera aztertzeko eta berdefizitzeko unea da". Azken urteotan bekara aurkeztzen diren proiektuen kopurua zein kalitateak behera egin dute. Aurtun, adibidez, proiektu irabazleaz gain beste bat soilik aurkeztu da. Egoera horri buelta eman eta bekaren inguruko hausnarketa egiten lagundu dezake proiektuak, beraz.





Sorkuntza, kulturaren erdigunean

Sorkuntzan arreta jarrita ari dira Udal Kultura Saila eta herriko kultur mugimenduko kideak lanean; erronka nagusia, Soreasun sorkuntza gunea sortzea

Kultur sorkuntzaren inguruan pauso garrantzitsuak eman ditu azken hilabeteotan Udalak. Kulturaren erdigunean sorkuntza jarri nahi da: "Sagustingo plaza egonkortuta dugu, eta Soreasun eztabaidatu nahi dugu. Horretarako, bidelagun Kultur Mahaia hartu nahi izan dugu. Soreasun, sorkuntza bultzatzeko gune sortzeko hausnarketa egin nahi dugu.", adierazten du Josu Labaka Kultura Batzordeburuak. Eta eztabaida hasi da kultur talde zein norbanakoekin.

Eztabaida horren helburua Soreasuri bizia emango dion sorkuntza gune baten proiektua garatzea bada ere, kultur mugimendua indartu eta belaunaldi berriak mugimendura erakartzea ere lortu nahi

da: "Uste dugu prozesu honetatik kultura indartuta irten behar duela, eta Soreasun etorkizuna marrazteaz gain, kultur mugimenduaren etorkizuna ere margotu behar dugula", jarraitu du.

Maiatzaren erdialdean egin zen lehen batzar irekia. Helburua, kultura bost "eremu lausotan banandu" eta eremu bakoitzak bere ausnarketa eta dinamika propioa ematea da. Hala, irudiaren, soinuaren, hitzaren, arte eszenikoen eta transmisioaren eremuak zehaztu dira, lanean hasteko. Hausnarketa horren lehen zirriborroa udara artean egitea aurreikusten da Horretarako eremukako bilerak zein norbanakoekin hainbat bilera egingo dira hilabete hauetan.

Sorkuntza beka

Kulturaren oinarriari tiraka aritu dira Udalak eta Kultur Mahaia azken boladan. Bide horretan, apirilean Sorkuntza Beka jarri zen lehen aldiz abian. Beka horren helburua da sortzaile berriei beren proiektua gauzatzeko baliabideak eskaintzea. 6.000 euroko beka da, eta lehen deialdia izateko erantzun paregabea jaso du: "10 proiektu jaso ditugu, eta proiektu oso interesgarriak dira, gainera", adierazten du Ainara Larrañaga zinegotziak.

Proiektuak aurkezteko epea bukatuta, epaimahaia proiektuak aztertzen ari da, eta maiatzaren bukaerarako bekaren irabazleak zeintzuk diren jakinarazita eta proiektuak ezagutarazita izatea nahi du Udalak.

Elkarlanean, herria sortzen

Hezkuntza udalen eskumen propioa ez bada ere, Azpeitiko Udala ikasleei eta herritarrei hezkuntza proiektuak garatu ahal izateko ikastaro eta zerbitzu hobek eskaintzeko esfortzua egiten ari da.

IKASLEENTZAT LOIOLAKO LIBURUA IREKITA ASTEBURUTAN



maiatzaren 7 eta 8ko asteburutik ekainean, Loiolako liburutegia asteburutan ere irekita izango da. Horretarako, azken urteotan bezala, Udaleko zein Loiolako liburutegiko

arduradunek akordioa egin dute: "Ikasle askok dute Loiolako liburutegira ikastera etortzeko ohitura. Azterketa garaian asteburutan irekitzeko eskaera egiten dute, eta Udalak Santutegiak bezalaxe zerbitzu hori eskaintzeko ahalegina egiten du", azaldu du Leire Goenaga hezkuntza zinegotziak.

Maiatzaren 7 eta 8ko asteburutik ekainean, 25 eta 26ko asteburua bitartean izango da irekita, zapatu eta igandetan.

Asteburutako ordutegia honakoa izango da: 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etatik 19:00etara.

Liburutegitik gogorarazi nahi dute ikasgelak ikasleentzat bakarrik egongo direla zabalik. Beraz, ikerketa edo liburu eskaerak, astelehenetik ostiralera egin behar dira. Sartzeko, liburutegiko karneta beharko da eta ohi bezala, sarreraren zenbakia idatzi behar da.

4.000 EUROKO LAGUNTZA HERRI URRATSENTZAT



azpeitiko Udalak 4.000 euroko laguntza eman dio Herri Urratsen bidez, Seaskari. Aurtengo Herri Urratsen bildutako dirua Baionako Bernat Etxepare Lizeoa laguntzeko izan da. Izan ere, eraikin berri bat egiteko proiektua dute abian eta 2017rako ikastetxe berrian izatea lortu nahi dute. Eraikin berrian Seaskako lehen lanbide heziketa zikloak eskainiko dituzte. "Pauso garrantzitsua da Seaskarentzat, Iparraldearentzat eta orohar Euskal Herriarentzat zonalde honetan lanbide heziketa ere euskaraz ikasteko aukera eskaintzea. Lanbidea euskaraz ikasteak etorkizunean euskaraz lan egitea bermatzen ez badu ere, lagundu egiten du, eta, guk, Azpeitiko Udalak, ondoan egon nahi izan dugu", adierazi du Ainhoa Beristain zinegotziak.

LIBURUAREN EGUNEAN, LIBURUAK PLAZARA



Iapirilaren 18tik 23ra bitartean, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekintza egin ziren Udala Liburutegian. Apirilaren 23an, asteari bukaera emateko, liburuak plazara atera ziren, eta Xalto Pailazoa lagun, haur, guraso zein herritar guztiekin irakurzaletasuna bultzatzeko egin ziren.

Egun hori aprobetxatuz, Ipuinaren Orduan bidelagun eta boluntario parte hartzen duten herritarrak eskertu nahi izan zituzten Udalak eta liburutegiak.



Loiolabide eta Sanjuandegi lotuko dituen zubia urte bukaerara bitartean eraikiko da

Sanjuandegiko Salbe auzoan hasiko dira epe motzean obrak; eremu horretan uholde arriskua txikitzeko egin beharreko lanez gain, auzoaren urbanizazioa berrituko eta berrantolatuko da, hitzartuta dagoen bezala



Urte asko dituen proiektua da Loiolabideko Etxebetz-lzarrako gunea eta Sanjuandegiko Salbe auzoa lotzen dituen zubia eraikitzearena. Babes ofizialeko zein libreko etxebizitzak eraikitzeko proiektua garatzeko ezinbesteko baldintza izan da hasieratik zubi hori eraikitzearena, hain zuzen, eta 2006. urtetik dago esleituta obra horiek egitea.

Udalak eta eraikuntza enpresek adostutakoaren arabera, Etxebetz-lzarrako azken etxeak eraikitzerako zubia egin beharko zuten enpresek. Izan ere, etxeak egitearen ordainetan bi enpresen artean egin behar dituzte eremu horretako urbanizazio lanak.

Azken urteotako krisiak gogor jo du

eraikuntza, eta inguru horretako etxeen eraikuntza ere uste baino gehiago luzatu da. Baina ari dira azken etxeak eraikitzen, eta zubia eraikitzeari ere laster ekingo diote.


Aldaketa nabarmena izango du inguru horrek guztiak. Izan ere, zubia izango bada ere ikusgarriena, bi auzoetan eta inguruetan beste hainbat hobekuntza ere egingo dira.

**Etxebetz-lzarra
eremuko etxeak
eraikitzeko proiektuan
jaso bezala eraikiko da
gune hori eta Salbe auzoa
lotuko dituen zubia**

Loiolabide auzoko aldaketak

Zubi berria Loiolabideko Etxebetz-lzarrako 63, 65 eta 67 etxe-atarien inguruan egingo da. Eta pare horretatik hasi eta Loiolabideko beste etxeetara arteko pasealekua egingo da, ibaiaren ondoan.

Horretaz gain, lgerileku ondoan dagoen zabalgunean autoentzat aparkalekua egitea ere aztertuko da. Aurreikuspena aparkalekua egitea bada ere, gune horretako zoruan sortzen diren arazoak jakitun, Udalak lurra eta aukerak aztertzen ari da..



Salbe auzoa

Salbe auzo inguruak hainbat arazo ditu, baina larrienetakoa uholde arriskuari dagokiona da. Izan ere, inguru horretako ibaiaren horma oso baxua da, eta uholde arriskuari irtenbidea ematea da obra horien helburuetako bat. Uholde arriskua saihesteko, inguru horretako ibai ondoko hormaren kota igo egin behar da, bi metro inguru, leku batzuetan.

Zubia Salbe 5 eta 6 etxe-atarien inguruan, errepidearen bestaldean, egingo da. Eta hortik Loiolara arteko bide osoak izango du erabateko aldaketa. Salbe 1 eta 5 atarien ingurua zaharkituta dago erabat, eta inguru hori txukundu eta berrantolatuko da erabat. Horretaz gain, gainera, Loiolarako bide zaharra oinezkotuko da. Hala, inguru hori guztia eraberritzean, autobusik ez da pasatuko eremu horretatik.

Trafikoaren
berrantolaketa
inguruan herritarrekin
hitz egiten jarraituko
du Udalak

Auzotarrekin bilera

Salbe auzoko obrak hastekoak zirela eta, auzotarrei horren berri eman eta proiektuan egindako zenbait aldaketa jakinarazteko bilera irekia egin zuen Udalak. Zubi berria trafikoarentzat ere irekia izango dela jakinda, inguru horretako auzotarrek beren kezken berri eman zuten.

Azpeitiko Udalak zubiaren trafikoaren inguruan hitz egiten segitzeko konpromisoa hartu zuen bilera hartan, eta bi auzo horietako auzotarrekin hitz egiteaz gain, orokorrean, herritarrekin hitz egiteko konpromisoa du trafikoaren berrantolaketa inguruan.

Herritarren bizi kalitatea hobetzen laguntzen duten obrak

1.- GARMENDI AUZOA, OINEZKOENTZAT EGOKIAGOA



Garmendi auzoan, oinezkoentzat paso berri bat egiten hasiak dira beharginak. Garmendi I eta 33 etxe-atariak lotuko dituen espaloia egingo da, inguru horretako bizilagunek egindako hainbat eskaerari erantzuna emanez.

Orain artean, auzoko parte horretan errepidetik egin behar izaten zuten bi etxe-atarien arteko zatia, eta autoak aparkatuta izaten zirenez, nahiko gune arriskutsua gelditzen zen. Espaloi horrekin, oinezkoentzako leku segurua izango da.

Ekin excavaciones enpresak egingo ditu gune horretako urbanizazio lanak, eta 50.022 euroko aurrekontua (BEZ barne) izango dute.

2.- XAGUXATARREN PARKEA, ERABERRITUTA



Ingurugiro Etxea Museoak parke berria du, erabat eraberrituta. Azpeitiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean "Xaguxatar" izeneko proiektu berria garatu dute, eta euskal ondare naturalaz sentsibilizatzeko helburua izango du. 1.8000 metro koadroko gune berrituak, saguzarra du irudi eta 6 gune desberdinetan banatuko dago.

"Parkea osatzeko lanak eginda daude, eta Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin ostean, irekitzea erabaki dugu, nahiz eta inaugurazio ofiziala aurrerago egingo dugun. Eguraldi onak hasi diren honetan herritarrek herrian jolasteko eta gozatzeko parke bat gehiago izan dezaten", adierazi du Aitor Bereziartua Ingurumen zinegotziak. Inaugurazio ofiziala bi erakundeen agendak bat egiten dutenean egingo da.

Parke eraberrituan zehaztutako sei guneak honakoak dira: Saguzarren horma, enbor bertikalak, baratza, labirintoa, intsektuen hotela, egongune alternatiboa eta haur jolasak.

2.- KIOSKOA, HAURRENTZAT SEGURUAGOA




Plazako kioskoaren ertz bateko eskailera inguruak haurrentzat duen arriskuaren jakitun, eta hainbat herritarren eskaerari erantzuna eman asmoz, Azpeitiko Udalak kioskoak dituen eskaileren gaina tapatu du.

Haurrek eskaileren ondoko petrilerara igotzeko ohitura hartu dute, eta altura handia duenez, eskailerak tapatzea erabaki du Udalak. Hala, burdinezko estruktura bat egin du. Erdia fijo da, eta beste erdiak irekitzeko aukera du, horrela beheko biltegia erabiltzeko arazorik ez da sortuko.

"Eskaileren gaina tapatu dugu, baina haurrak kioskoaren kanpoko aldetik nolanahi ibiltzen dira. Beraz gurasoei ere haurrak kioskoan dabiltzanean harreta jartzeko eskatu nahi diegu, ezer gerta ez dadin", azaldu du Josu Labaka zinegotziak.

Udal kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, tresna informatiko berria du Udalak



barne kudeaketa hobetzeko tresnak eta baliabideak ezarri, herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetu eta egokitzeko pauso berria eman du Udalak. "Behin baino gehiagotan aipatu dugu kristalezko paretak izatea nahi dugula Udalak. Gardentasuna da gure politika egiteko irizpideetako bat, eta bide horretan osatu dugu zerbitzu orokorrak hobetzeko programa informatiko hau ere", adierazi du Josu Labaka zinegotziak.

Herria txukun mantentzeko egiten diren lan txikien kudeaketa eta herritarren eskaerei erantzun egoki eta ahalik eta azkarrena emateko sortu da: "Lan txikiak deitzen diegu guk, baina oso

garrantzitsuak dira guretzat eta herritarrentzat. Horiek eragiten baitute bizi kalitatean. Horregatik jarraitu eta kontrolatu nahi ditugu gero eta hobeto kontu horiek", adierazi du Labakak.

Batez ere kontrolerako eta etengabe hobetzen joateko tresna paregabea da. Hala, hilabeteka zenbat eskaera egin diren (udaletxetik bertatik edota herritarrek), erantzunik jaso al duten, zeinen esku dagoen erantzuna, zenbat egunean erantzun den edota konpondu den zehazten du plataformak.

Apirilari dogokionez 529 eskaera jaso ziren. Horietatik 304 eskaera udaletxe barrukoek egindakoak ziren, eta 225 herritarrek egindakoak. 529tik 399ri erantzun bat eman zaie, eta kasu gehinetan arazoari irtenbidea emanda bukatutzat eman da. Beste 130 eskaera bukatzeko lanean ari dira.

Batezbeste Azpeitiko Udalak 10 eguneko epean ematen die erantzuna eskaerei: "Epe hori mozten joatea dugu helburu, ematen den zerbitzuaz eta gaur hemen eman ditugun datuez gain, uste dugulako herritarrei eskaintzen diegun arretan dagoela gakoa", adierazi du Labakak.

Eskaerak Internetez

Herritarrek beraien eskariak Internet bidez egiteko aukera dute www.azpeitia.eus webgunean. Bertan galdetegi bat dago, bakoitzaren ekarpenak eta eskariak egiteko. Behin hori bete eta bidalita, Udala harremanetan jarriko da.

Loiolako etorbidea konpontzen



Loiolatik Munategi alderako pasealekuko zoruan konponketa lanak egin berri ditu Azpeitiko Udala. Ertzetan landatuta dauden tiloen sustraiak urtez urte handituz doaz, eta horrek zorua altxatu eta hainbat gunetan koskak sortzea ekarri du. Lurra txukundu eta pasealekua egokitzeko obrak egin dira oraingoan. Konponketa horiek egiteko 30.000 euro inguruko aurrekontua izan du Udalak.

Laster, Esklabetatik Jesus Marietara artekoa

Esklabetatik Jesus Marietara tarteko pasealekuko zoruak duen egoeraren jakin zen Azpeitiko Udala, baina 2016ko aurrekontuak osatzeko Denon Artean parte-hartze prozesuan jasotako hainbat ekarpenek eskatu bezala, guneko horretako zoru guztia eraberritzeko obrak hasiko dira, ekainean, aurreikuspenen arabera. "Lurra txukuntzeko asmoa bagenuen, eta herritarrek egindako eskaerak ikusita, guneko hori konpontzeari ahal bezain pronto heltzea erabaki genuen", azaldu du Aitor Bereziartua zinegotziak.

Ez da lurra konpondu bakarrik egingo, ordea, izan ere, ura eta gasa bezalako azpiegituren instalazioa egin eta argiteria indartzeko ere aroketatuko da. "Obrak esleipena abian da, eta ekainean lanak hasita egotea aurreikusten dugu", zehaztu du Bereziartuak.

1766. urteko Matxinadaren 250. urteurrena

Garai hartako gertaerez Ildefonso Gurrutxagak Yakintza aldizkarian argitaratutako testua debalde eskuratu dezakezu bertsio originalean zein euskaratuta udaletxean eta liburutegian.



EGIRARAUA

- Ekainak 1, Azkoitia: Oihane Oliveri, *Emakumeen rolak antzinaroan*.
- Ekainak 8, Azpeitia: David Zapirain, *Matxinadaren osteko kontrol soziala*.
- Ekainak 15, Azpeitia: Iñigo Aranbarri, *1766ko matxinada, kultura eta umorea*.

